



HEZKUNTZA LEGEA IKASTOLEN ELKARTEAREN LAN-PROPOSAMENA

2017ko otsaila



ikastolenelkartea

Aurkibidea

0.- Sarrera	5 orr.
1.- Zergatik eta zertarako Hezkuntza Legea?	7 orr.
2.- Legearen edukia	11 orr.
➤ 1.atala edo blokea.- Eskolaren ildo berdintzailea eta sozializatzailea	
1.1. Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa (EHZP)	
1.2. Aukera berdintasuna eta ekitatea, hezkuntza inklusioa	
1.3. EHZPren finantziak	
➤ 2.atala edo blokea.- Hezkuntza edukiak	
2.1. Euskararen ardazturiko hezkuntza eleanitza	
2.2. Konpetentzia digitalaren garapena	
2.3. Hezkuntza sistemaren eta ikastetxeen ebaluazioa	
2.4. Irakasleen prestakuntza	
➤ 3.atala edo blokea.- Antolaketa, ikastetxeen autonomia	
➤ 4.atala edo blokea.- Eskola emaitzen hobekuntza	
3.- Nola aurreratu Hezkuntza Legea	31 orr.
4.- Amaiera	33 orr.



ikastolenelkarte

Sarrera

2016-2020 legealdian hezkuntzak eta Euskal Hezkuntza Legeak zentraltasuna izango dute. Legealdi bukatu berrian horren beharra agerian geratu da. Adierazpen biribil hauen oinarrian zenbait datu:

- hezkuntza eragileok, eduki bat edo bestea agerturik, gogo-maila desberdinak tartean, aurreko legealditik geratzen den askatu gabeko gaitzat hartzen dugu.
- partidu politiko nagusien haien hauteskunde-egitasmoetan hezkuntza akordioa eta Euskal Hezkuntza Legearen aipamen zehatza egin dute.
- Hezkuntza Sailak joan den legealdiko azken hilabeteetan publikoki onartu zuen Heziberri 2020 proiektuaren 3.egitasmoa legealdi honetara atzeratu behar zuela.
- Hauteskunderen ondoren, EAJk eta PSE (EE)k "Hezkuntza-ituna Hezkuntzaren Euskal Lege berri bat sortzeko"¹ konpromisoa sinatu dute 2016ko azaroan.
- EITBk Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan antolaturiko inkestaren arabera ² "lau herritarretatik hiruk aldarrikatu dute Hezkuntzarako Euskal Lege bat abian jartzea" titularra adierazten zigun. Iritzi honen aurka % 10 baino ez.

Behin eta berriz aldarrikatu dugun bezala, gurea bezalako nazio txiki batean, Euskal Herriaz ari gara, hezkuntza da euskal gizartearen lehengai eta balio erantsi nagusienetako bat. Gure inbertsio inportanteenetakoa beharko luke izan. Krisialdia garbi asko uzten ari da honen beharra eta "bizitza osoan zehar" hezkuntzaren helburu nagusia dela.

Gizarte gisa, abagune honetan ezin dugu berriz ere huts egin, hezkuntzaren lehentasuna eta Euskal Hezkuntza Lege baten beharra euskal gizartearen aukera kolektibo bihurtu behar ditugu, bihurtuko dira.

Ikastolok 2004 urtean hasita ³, aurrea hartu genion Euskal Hezkuntza Legearen aldarrikapenari. "Topaketak" izenburuko ekimena baliatuz, hainbat edizioetan proposamen honetan azaltzen diren zenbait kontzeptu landuz eta aukera eginez joan gara: Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa, ekitatea eta kalitatea, finantziaketa ekitatiboa, ... Halaber, gure izaeratik datozkigun ezaugarriak eta pedagogia aukerak ekarri ditugu proposamen honetara, hala nola, Euskal Curriculum, euskara ardatz hartzen duen eleaniztasuna, IKT ataleko lana, ebaluazioa, ... Hauek guztiak txosten batean bildu eta Eusko Legebiltzarrean parte hartzen duten talde parlamentarioei aurkeztu genien 2016ko maiatzaren 4an⁴. Bistan denez, ez gara hutsetik abiatzen, ibilbide luzea eta oparoa egin dugula esan dezakegu.

¹ "Enplegu gehiago eta hobe, gizarte oreka gehiago, elkarbizitza gehiago eta Autogobernu gehiago eta hobe dituen Euskadi eraikitzeke zutabeak", 2016ko azaroaren 22an, EAJ-PNVk eta PSE (EE) PSOEek sinatua

² EITB Focus hezkuntza, 2016ko apirila

³ Herri onurako zerbitzua irakaskuntzan, Ikastolen Elkarte-Partaide, 2004.

⁴ Ikastolen Elkartearen Agerraldia Eusko Legebiltzarren Hezkuntza Batzordean, 2016-05-04

Honen ondorioz, proposamen honetan hiru zati nagusi agertuko dira:

- lehen zatian, Hezkuntza Lege baten zergaitiak eta zertarakoak azaltzen ditugu.
- Bigarreanean, Legearen edukia edo interesgune nagusiak bildu dira.
- Hirugarreanean, Hezkuntza Legerantz aurreratzeko zenbait urrats adierazten ditugu.

Proposamen hau egin dugunean, ikuspegi orokorra hartu nahi izan dugu kontuan. Alde batetik, Euskal Herriko ikastola guztiak biltzen dituen erakundea garenez, komunean biltzen ditugun ezaugarriak eta esperientzia ekarri dugu proposamen honetara. Bestetik, proposamen honen markoa EAE izango den arren, irizpide nagusiak ikastola eta euskal hiritar guztientzat baliogarriak izan daitezkeelakoan gaude. Aldi berean, ikastolak euskal gizarteari eta haren eragile erakundeei egiten diegun proposamena dugu, ez da ikastolak gure buruarentzat egiten dugun proposamen soil.

Ez da nolahaniko urratsa, ez da erreza izango, eragozpenak nonahi agertuko zaizkigu, baina berriz diogu, oraingo honetan asmatu behar dugu.

Sarrera honen hasieran genioen bezala, Euskal Hezkuntza Lege baten beharra eta aukera garbi ikusten ditugu. Horrexegatik, gurea bezalako talde batek, orain arte egin dugun bezala, urrats desberdinak burutu nahi ditu datozen hilabeteetan:

- proposamena bera ikastola guztietara eta ikastolakide guztiei helarazi.
- Ikastolen Elkarteko artezkari eta profesionalen disposizioa adierazi ikastoletako arduradunekin, langileekin eta familiekin proposamen honen muina partekatzeko.
- halaber, beste hezkuntza eragile, partidu politiko, sindikatu, komunikabide eta erakundeekin jorratu beharko dira, lehenago ala geroago eztabaida soziala zabalduko baita gai hauen inguruan.

UNESCOren asmoarekin bat eginik, halaxe definitzen dugu hezkuntzaren xedea: “Beste gizakiekin eta naturarekin elkarrekintzan, gizakion ongizatea, gaitasuna eta duintasuna garatzea eta areagotzea izan behar du XXI.mendeko hezkuntzaren xede nagusiak”⁵. Esaldi batera eramanik eta eztabaida antzuetatik alde egin nahian, **ikaslea bera eta ikasle guztien eskubideak bihurtu nahi ditugu Euskal Hezkuntza Sistemaren ardatz.**

Hauxe dugu abiapuntu.

⁵ Replantear la educación ¿hacia un bien común mundial?”, UNESCO 2015

1.- Zergatik eta zertarako Hezkuntza Legea?

Hezkuntza Lege baten beharraz argudio asko eman daitezke. Arrazoi-zerrenda askoz luzeagoa izan zitekeen arren, funtsezko argudio hauek adierazi nahi ditugu:

- 1.- Ia hogeita bost urte iragan dira euskal hezkuntza eremua esanguratsuki eta partzialki arautua izan zenez geroztik, 1992ko hezkuntza hitzarmenerako akordio politikoa oinarritzat hartuz.

Geroztik asko aldatu da euskal gizartearen testuingurua eta euskal gizarte bera, testuinguru sozioekonomikoa, globalizazioa, zientzia eta teknologiaren garapena, bereziki zibernetika eta internet gertaeren agerpena eta hauen eragina, neurozientziaren aurrerapena, hizkuntza testuingurua, hezkuntza paradigma berriak agertu dira eta aldaketarako antolaketa eta metodologiak ere, migrazioak, bizikidetzaren orokorra, familiaren ereduak, gizartearen zahartzea, esate baterako. Gizarte-aldaketa hauek, besteak beste, euskaldunon bizimoduaren eta baloreen aldaketa ekarri dute.

Bestalde, aipatu aldaketa hauek guztiek eragin dute eskolameengan eta haien familiengan, eskolen eta eskola komunitatearen osaketa eta bizikidetzan. XXI.mende hasieran euskal gizartearen, euskal eskola sistemako ikasleen, familien, irakasleen eta ikastetxeen beharrek eta erronkek ez dute zerikusirik orain hogeita bost urteko gizartearen eta eskolarekin. Eta egunero errealitate hori bizi izan dugu/bizi dugu gure ikastetxeetan, gure hezkuntza egoeran.

Gure inguruko Eskola araupetzen duen legedi orokorra eta araudia, berriz, ez dira aldatu, ez dira egokitu euskal gizarteak behar duen heinean garai berrietara, ez dira bihurtu aldaketarako, behar berriei eta gizarte-erronkei erantzuteko tresna edo baliabide egokirik. Honekin ez ditugu ukatzen gai hauei partziaki erantzun zaienik. Baina, gure aburuz, bada garaia, legez ere, aukera osoa eta eguneratuagoa sortzeko, egungo errealitateari eta bihar/etziko euskal gizartearen beharrei loturik jardun ahal izateko.

- 2.- Une honetan, EAEko sistemako ikastetxe erdiek baino ez daukate euskal Administrazioak berariaz sorturiko lege baten babesa. 1/1993 Euskal Eskola Publikoaren Legea sortu zenez geroztik, Lege honen menpean geratu ez ginen ikastetxeok bertoko Administrazioaren lege-markorik gabe dihardugu. Ez gaude legalki behar bezala babesturik. Esate baterako, hezkuntza sistema osorako (publikoa eta kontzertatua) Hezkuntza Sailaren agindu edo erabaki orokorrak egiteko Eskola Publikoaren legedia hartzen da erreferentzia bakartzat, ez da sistema osoaren egoera kontuan hartzen.

Hala eta guztiz ere, legediak berez ez ditu Eskolaren ekitatea, hobekuntza edo bikaintasuna bermatzen. Legedia egokia izanez gero, kasurik

hoberenean, baldintza eta lanabes ona izan liteke euskal lurraldeetako eskolok bikaintasun ekitatiborantz eta hezkuntza inklusiboagorantz urrats kualitatiboa egin genezan. Izan ere, hezkuntza legedi egokia beharrezko baldintza da, ez akaso nahikoa, beste Eskola eredu batera (euskalduna eta kalitatezkoa, inklusibotasuna eta eleaniztasuna bultzatzen dituena, bikaintasun ekitatiboa bilatzen duena, bizitzarako pedagogia aurrerakoia proposatzen duena) aurrerapen esanguratsua egiteko.

- 3.- Euskal gizartearen egituraketak, gure iritziz, berez eta Euskal Herri mailako proiektu baten bidean, beste arloetan gertatu bezala, Hezkuntza Lege baten beharra eskatzen du.

Herri bezala eta sektorialki ere, azken hogeita hamabost urteetan bereziki, urrats instituzionalak egin ditugu. Legez, proposamen orokorrak zein partzialak Eusko Jaurlaritzak zein gobernuz kanpoko partidu eta talde parlamentarioek bultzaturik, 1981 eta 2016 urte bitartean, oker ez bagaude, 375 lege araupetu eta onartu dira Legebiltzarrean.

Unibertsitatekoek kanpoko Hezkuntza arloan, berriz, 12. Horietatik, 1993az geroztik, 1/1993 (Euskal Eskola Publikoaren Legea) eta 2/1993 (Unibertsitatez kanpoko irakasle-kidegoari buruzkoa) Legeen aldaketak baino ez dauzkagu. Hainbat aldiz hauteskunde-egitasmoetan edo beste adierazpenetan, gorago esan bezala, aldarrikaturiko Hezkuntza Legearen arrastorik ez.

- 4.- Aurreko guztia gutxi balitz, LOMCEk eta Lege honen ezarpenak agerian utzi du berriazko Hezkuntza Lege baten beharra. Egungo lege-marko honetan lege organiko baten balorea ezagutzen dugu. Jakin badakigu euskal Administrazioak onarturiko Hezkuntza Lege baten mugak nabarmenak izan litezkeela.

Baina muga guztien gainera, instituzio, partidu politiko eta hezkuntza eragile gehien bultzadaz sorturiko berriazko lege-markoa bide ona da, gure ustez, erreferentzia-puntu eta zilegitasun alternatiboa adierazteko.

Halakorik ez dugun bitartean, estatutik etor daitezkeen LOMCE bezalako ekimen atzerakoi eta negatiboen aurrean indarge ibiliko gara, aurre egiteko iparririk gabe.

- 5.- Lege baten egikerak, eskatzen dituen prozesuak eta hausnarketak, hezkuntza arloko epe ertaineko helburuen eta lehentasunen definizioa argitzen lagundu beharko luke.

Bestalde, hobekuntzari loturik, Ebaluazio Diagnostikoa, PIRLS, TIMSS edo PISAko kanpo-ebaluazioaren arabera (gogoratu behar da PISA, adibidez, ez dela hezkuntzaren ebaluazioa egiteko tresna bakarra, bai, aldiz, kontuan hartzekoa), ondorio bat aldarrikatzen dugu: **kaxkarkerian oinarrituriko eskola emaitzak ditugu, horixe dela eskola emaitzen joera** kanpoko

ebaluazioetan. Ekitatiboak bai, baina nahiko kaxkarrak. McKinsey etxeak⁶, aldagai sozioekonomikoak eta hezkuntza atalekoak kontuan hartuz, Erkidego desberdinen hobekuntzarako gaitasuna definitu zuen 2010 urtean:

- EAERI zegokionez, hobekuntzarako aukera 42 puntutan finkatu zuen, hots, Finlandiako emaitzak lorgarri.
- Nafarroan, aldiz, 27 puntuko aukera adierazten zuen, Kanadak lortzen zituen emaitzen parean.

Proposamen hauekin batera estrategia desberdinak adierazten zituen. Beste estatu eta nazioetako esperientziak (Ontario eta Alberta Kanadan, Herbereak, Finlandia, Eskoziak,...) erakutsi bezala, hezkuntza arloko helburuak eta neurriak planifikatu eta garatu ahal dira beste modu batera.

Zoritxarrez, PISA 2015eko frogen emaitzek eta 2016ko Ebaluazio Diagnostikoan lortuek baieztatzen dute 2012tik aurrera behin eta berriz egin dugun diagnostikoa, erakundeei (Hezkuntza Saila eta Eusko Legebiltzarrari) eta partidu politikoei sarritan adierazitakoa. **Aurrera egin beharrean atzera egin dugu.** Gaiari Legearen edukien atalean berariazko trataera emango diogu.

Gure ustez, Lege batek suposatzen duen aldaketa orokorrak hobekuntzarako testuinguru egokia eskein dezake. Adibidez, gure kasuan, gai batzuen trataeran (etorkinen eskolaketa, euskara ardatz hartzen duen eleaniztasuna, eskola emaitzen hobekuntza edo ikastetxeen autonomia, esate baterako) lege oinarri sendoagoa eta orokorra ezinbestekoak dira eta hauek guztiak egoki bideratzeko Hezkuntza Lege baten bultzada eta benetako aurrerapena izan daiteke.

Michael Fullanek idatzitako artikulu batean ⁷ ondorengo konstatazio egiten du: "El principal problema no es la ausencia de innovación en las escuelas, sino más bien la presencia de demasiados proyectos inconexos, episódicos, fragmentados y adornados de forma superflua". Honen ondorio zuzena da gizarte osoak behar duela norabide argia, ez bakarrik hezkuntzak.

Era honetara ulerturik, Legea bihurtu ahal da, bihurtu beharko litzateke irakaskuntzaren kalitatearen eta apendizaiaren hobekuntzarako erronka eta aukera. Ikastolen Elkartearen ustez, zertan zentratu beharko genuke hobekuntza, zein izan beharko luke Lege baten edukia?

⁶ Educación en España, motivos para la esperanza", McKinsey@Company 2012

⁷ Los nuevos significados del cambio en la educación, Octaedro 2002

2.- Legearen edukia

Datozen orrialdeetan Hezkuntza Lege baten garapenerako ideia edo interesgune nagusiak azalduko ditugu, gakoak izan daitezkeen ideiak edo iritziak, lau atal edo bloketan bildurik. Hasteko, hezkuntzaren definizioan hezkuntzaren ezaugarri berdintzaile eta sozializatzailea azpimarratu dugu. Bestalde “bizitza osoan zehar” pertsonak egin beharreko prestakuntza (euskaran ardazturiko eleaniztasuna, konpetentzia digitala, hezkuntza sistemaren eta ikastetxeen ebaluazioa, edo/eta irakasleen prestakuntza); hirugarrenez, antolaketa-mailako gai bat, ikastetxeen autonomiaren garatu nahi dugu eta, azkenik, eskol-emaitzen hobekuntza (hobekuntza orokorra).

Gure proposamenaren oinarrian Euskal Curriculum (EC) dugu, zehar lerro gisa ulerturik: hezkuntza ataleko aukerak ezin dira ulertu ECren erreferentziarik gabe, ezta ere antolaketa atalean egiten den proposamena.

Euskal Curriculumaren inguko lanketaren abiapuntuan ondorengo galdegaiari emandako erantzuna dugu: *Zer da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean, Euskal Herriko ikastoletan ikasten ari den 16 urteko gazte batek, euskal kulturari eta kultura unibertsalari buruz gutxienez bereganatu behar dituen ezagutzak, egiten jakin behar dituen prozedurak eta bereganatu behar dituen baloreak eta jarrerak?*⁸

Egia bada ez garela ezer, egiten ez dugun bitartean, ikastolok gure izaera agerian utzi dugu, euskal curriculumaren aukera gure ibilbidearen eta zeregin iparra bihurtu baitugu. Beraz, era ireki batez ulerturik eta autonomiaz garaturik, gure ustez, Euskal Curriculum da Hezkuntza Legearen muina eta ardatza.

Erantzun horretan hezkuntza eragile eta erakundeek adosturiko konpetentzietan oinarrituriko curriculum diseinuarekin batera, ikastolok berariazko hautu pedagogikoa txertatu dugu, integrazio pedagogiarena, alegia. Aukera horren baitan gauzatzen ari den curriculum-diseinuaren baitako edizio-plan osoa (paper eta digital euskarrietan) eta irakasleen prestakuntza bultzatu ditugu, baita ikastoletako ikasleen emaitzen hobekuntzarako proiektu bat ere.

Aurrekari hauek kontuan hartuz, ondorengo orrialdeetan Euskal Curriculumaren gaiari ez diogu erantsiko bestelako proposamen gehigarriak. Proposamen orokor honen zutabetzat hartu behar dugu.

⁸ Ikastolen II.Batzarra, 1996

1.atala edo blokea.- Eskolaren ildo berdintzailea eta sozializatzailea

Hiru planteamendu nagusi garatzen dira: Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa (oraindik aurrera EHZP), Aukera berdintasuna eta EHZPren finantziarioa.

1.1.- Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa (EHZP)

Hezkuntza euskal hiritar guztion oinarrizko eskubidea da, euskal jendartearen (gizartearen) prestakuntza eta kohesioa sustatzeko eta desberdintasun sozialak gainditzeko lanabesa. **Horregatik hezkuntza zerbitzua publikotzat jotzen dugu.**

Euskal hezkuntza zerbitzu publikoa publiko-hiritar ikuspegian kokatzen dugu, hots, komunitateari lotua, hezkuntzan ere demokrazia parte-hartzailea gauzatu nahi baitugu.

EHZPren zereginaren ildo nagusiak definitzeko garaian, **bi galdera** egin dizkiogu dure buruari:

-  **zeintzu ikastetxek osatu beharko lukete EHZPa?**
-  **zeintzu lirateke ikastetxe horien eskubideak eta betebeharrak?**

Lehen galderari erantzunez, euskal gizartean titulartasun-mota desberdinetako ikastetxeak daudela argi dago. Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikora, aldiz, bildu ahalko dira funts publikoekin hornituriko ikastetxeak, hots, administrazioko ikastetxeak, ikastolak eta gizarte ekimeneko ikastetxeak, bakoitzaren Hezkuntza Proiektua eta titulartasuna galdu gabe, hezkuntza zerbitzuaren ezaugarriak bete eta ikasle guztien hezkuntza eskubidea, inolako bazterkeriarik gabe, bermatuko dutenak.

Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoan erantzukizun kolektiboa eta jendartearen partaidetza nabarmendu nahi ditugu. Honen guztiaren ondorioz, zerbitzuaren planifikazioa, kontrola, ebaluazioa eta finantziarioa Administrazio publikoaren ardurapean egongo dira. Zerbitzuaren diseinua, antolaketa, kudeaketa eta garapena botere publikoei eta hezkuntza komunitateari egokituko zaizkie.

Eskubide eta betebeharrari dagokienez, EHZPren partaide izango diren ikastetxe guztiek gutxienez oinarrizko **hiru betekizun** izango dituzte:

- ikasle guztiak onartzea eta hezteak, bazterkeriarik gabe.
- hezkuntza eskubidea bermatzea, derrigorrezko hezkuntza dohan eskeiniz.
- kudeaketa demokratikoa, gardena eta sozialki kontrolagarria burutzea.

Bere aldetik, Administrazioak ondorengo ardurak bereganatuko ditu:

- Dohakotasuna bermatuko duen finantziario nahikoa
- Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren baldintzak betetzen dituzten ikastetxe guztien eskaintza bere egitea.

- Zerbitzuaren planifikazioa, ebaluazioa eta kontrola.

Ikastetxeen autonomia, nortasun instituzionala eta kudeaketa bermatze aldera, ikastetxeen eta botere publikoen arteko harremanak hitzarmenetan oinarrituko dira, titulartasun eredu desberdinen osagarritasuna, gurasoen aukera, aldean nortasuna eta ezaugarriak zainduz, beti ere arestian aipatutako ezaugarriak betetzen badira.

Oraingo honetan ez sakondu arren, EHZPra biltzen diren ikastetxeen bi ezaugarri aipatu nahi ditugu: herri onurako elkarteak lehentasunez izan behar dutela gure ustez ikastetxe horien jardunaren titularrak eta demokratikoki kudeaturik egon behar dutela.

1.2.- Aukera berdintasuna eta ekitatea, hezkuntza inklusiboa

Aurreko atalean EHZP-k gizarte kohesioa, integrazioa eta aukera konpentsatzailea sustatu behar dituela azpimarratu nahi izan dugu. Hiritarrok hezkuntza sistemari gizarte-berdintasunerako eta eraldaketarako izugarrizko ahalmena atxikitzen diogu, hots, ikasle guztiak gutxieneko prestakuntza maila komunera iristeko ahalmena, hain zuzen ere.

Horrexegatik, hezkuntza aukera inklusiboak ikaslegoaren egoera desberdinak hartu behar ditu kontuan: beharrizan bereziko ikasleena, etorkinena, genero desberdintasuna, gizarte desberdintasuna, ..., eskolak aprendizaiarako beharrizan-aniztasunari arretaz erantzun behar baitio. Hain egoera anitza eta konplexua izanik, Hezkuntza Lege batek hauek guztiak bideratzeko irizpideak definitu beharko lituzke.

Estrategia bat diseinatze aldera, iradokizun hauek egiten ditugu:

- lehenengo eta behin garbi utzi nahi dugu, gure ustez ezin dela ulertu ekitaterik gabeko eskola kalitatea: bi kontzeptu hauek banaezinak baitira, biak ala biak batera ulertu behar dira.
- gizarte banaketa (segregazio) arazoak sortzen direnean, inguruan askotariko arazoak egoten dira, sarri askotan eskola markoa gainditzen duten arazoen aurrean egoten gara. Ondorioz, eskola-mailako eskuhartzeak (interbentzioak) ez dira nahikoak, egitasmo orokorragoak behar izaten dira, departamentuarteko egitasmoak hain zuzen (gizarte eta enplegua, hirigintza, osasuna, hezkuntza,...).
- Gure ustez, hezkuntza aukera inklusiboak emaitzetara eraman beharra dago, EHZPk pixkanaka ikasle guztien eskola emaitza berdintsuak eskuratzen bultzatu eta ahalbidetu behar duela deritzogu. UNESCOren txosten batek dioen bezala ⁹, "inklusio-atalean ideia bat gainditu beharra dago, hezkuntza sisteman sartzearena eta ezagutzan txertatu

⁹ La Educación inclusiva: el camino hacia el futuro, UNESCO, 2008

behar ditugu ikasle guztiak". Era progresibo batean, ikaskuntza pertsonalizatuaren bidean, denontzako hezkuntza eta eskola bermatzetik ikasle guztien apendizai bermatzera joan behar dugu. Hezkuntza sistemaren bikaintasuna ikasle guztien emaitzen hobekuntzan sustatu behar da.

- ondorioz, pedagogia berrikuntza, ikasle horientzako egitasmo bereizgarriak eta familien partaidetza tarteko, gurasoak erakar daitezke ikastetxe horietara eta "geto" bihurtzeko arriskua gainditu. Eskola eta ikastetxe ukituek pedagogia konpentsaketa eduki beharko lukete, Administrazioak haien esku baliabide gehiago jarritz. Aldi berean, Administrazioak berak bermatu beharko luke edozelango ikastetxean beharizan bereziko ikasle-kopuruak, bere osotasunean harturik, ezin duela gainditu hasiera batean %30eko muga (1.legealdian), bigarren urrats batean (2.legealdian) %20kora iritsi asmoz.
- irizpide hauek errealitatean gauza daitezzen, benetako aukera berdintasuna eta inklusioa bermatze aldera eta Administrazioak behar besteko baliabideen ekarpena eginez, EHZPen biltzen diren ikastetxe guztietako eskolaketaren benetako dohaintasuna bermatu behar da.
- halaber, irizpide hauetan oinarriturik, edozein ikastetxek, dagoen eskola barrutian, edozein beharizan bereziko ikasleen eskolaketan bere matrikulazio-tasaren neurriko konpromisoa hartu beharko lukeelakoan gaude. Irizpide hau EHZPko ikastetxe eta ikastetxe-talde guztiok geure egin beharko genuke, denon konpromiso bihurtu beharko genuke.
- aldi berean, Administrazioak alde guztien beharizanak (ikasleen matrikulazio ekitatiboa, beharizan bereziko ikasleen banaketa, curriculum arloko graduazio egokia, ..) eta eskubideak (doako eskolaketa) bermatzeko kontrol-mekanismo argiak erabili beharko lituzke.
- bestalde, hezkuntza eragileok ez genituzke gai hauek erabili beharko abantaila administratibo eta finantziario bereziak eskuratzeko. Gure ustez, gai hauek ezin dira erabili besteen aurka, eztabaida eta akordio sozialaren bidean jarri beharko genituzke. Jokabide hau ere denon konpromiso bihurtu beharko genuke.
- laburbilduz, gure ustez, Administrazioak bere zeregina zerbitzu publikoaren definizioan artikulatzen den estrategiaren baitan ulertu beharko luke, planifikazioa bere eskumena izanik, baina gizarte zibilaren eta hezkuntza eragileen partaidetza esparru honetako diseinuaren eta inplementazioaren ataletara eramanez.

Aipatu irizpideak gauzatzeko, Euskal Hezkuntza Legeak bere baitan bi bide zabaldu beharko lituzke:

- nola trasladatu irizpide hauek hezkuntza politikara: curriculum aldaketak eta egokitzapenak, antolaketa eta kudeaketa, inguruarekiko harremana, irakasleen prestakuntza, finantziazio-neurriak, ebaluazio-irizpideak.
- zer nolako bideak hausnartu aldaketa hauek gelako praktika eraginkor bihurtzeko.

Gaur egun badaude Kataluinan, Europan eta Estatu Batuetan zenbait eskola eta praktika egoki, non hezkuntza berrikuntzarako estrategiak erabiliz eta eskola bazterketa gainditu kalitate handiko hezkuntza eskaintza inklusiboa ikasle guztientzat bermatzen den. Bikaintasuna eta ekitatea bildu dituzte. Horiek ezagutzeak eta haien praktika aztertzeak hobekuntzarako bidean jar gaitzake, azken batez “ikasle guztientzako hezkuntza aukera egitea, ikasle guztiekin eta ikasle bakoitzarentzat”¹⁰, Hezkuntza Sistema baten erronka nagusienetakoa baita.

1.3.- EHZPren finantziazioa

Aurreko bi ataletan definitu ditugun ezaugarriak gauzatzeko ondorengo irizpideak aldarrikatzen ditugu:

1.3.1.- EHZPren barruan dauden ikastetxe guztiek oinarrizko tratamendu ekonomiko-finantzario bat jasoko dute.

Zeretik abiatuz gero, ziur aski beste planteamendu bat egingo genuke. Hala ere ezin dugu gaur egun dagoen errealitatea ukatu. Beraz, Hezkuntza Lege baten babespean, EHZPren helburuak ikastetxe bakoitzean bete eta ikastetxeen **oinarrizko funtzionamendua** eta zerbitzuaren dohakotasuna ziurtatuko lituzkeen tratamendu finantziarioa izango litzateke oinarri. Honen ondorioz, berdintasunaren irizpidea nagusituko litzateke sisteman, titularitate juridikoaren arabera inolako diskriminaziorik jaso gabe.

Oso garbi esan behar dugu, ikastolok, ezta ere beste ikastetxe kontzertatuek, ez dugula jasotzen derrigorreko hezkuntzaren dohakotasuna bermatzeko gutxieneko finantziazio nahikoa. Gaur egun, tamalez, ezin ditugu bermatu aurreko bi ataletan EHZPk izan beharko lituzkeen ezaugarri guztiak.

Horrexegatik, oinarri gisa, ikastetxe kontzertatuentzat egungo hezkuntza moduluaren berrikuntza proposatzen dugu (irakasleen eta AZPko langileena, Mantenua eta funtzionamendua eta RIR ataletako kosteak barne). EHZPko langile guztien soldaten homogeneizazioa eta antzerako trataera ere bereziki hartu beharko lirateke kontuan.

¹⁰ La Educación inclusiva: el camino hacia el futuro, UNESCO, 2008

1.3.2.- Hezkuntza Sistemak bultzatzen diren ezaugarrien balorapen positiboa.

Behin oinarritzko baldintzak betetzen dituzten ikastetxeen oinarritzko tratamendu ekonomiko finantzarioa ezarri ondoren, ikastetxeetako ikasleriaren ezaugarrien eta ikastetxeen hezkuntza ekarpenaren arabera, ikastetxe bakoitzak **finantziario osagarria** eduki beharko luke. Atal honetan bereziki **hiru bide nagusi** ikusten ditugu:

- **Ikasleriaren ezaugarriak:** hezkuntza sistemaren funtzioa nagusienetakoa ikasle guztientzat aukera berdintasuna helburu izanik, maila honetako eragozpenak dituzten ikastetxeek (ikasleen ISEK behe mailan portzentai jakin batean, euskararen egoera gutxitua ikastetxearen inguruan, landaguneetan kokatuak, ...) baliabide osagarriak jaso beharko lituzkete, ikastetxeen autonomia eta ekitatea lotzen dituen aukera bermatuz.
- **Hezkuntza sistemak bultzatzen dituen lehentasunak** garatzeko aparteko ekarpena egiten duten ikastetxeek eta ikastetxe-taldeek ere (Euskal curriculumak, euskara ardatz hartzen duen eleaniztasuna, IKT atalekoak, edo bere momentuan bultzatuko direnak) haien hezkuntza proiektua garatzeko baliabide-mailako aukera berezia eduki beharko lukete.
- **Ikastetxeen ondarearen trataera.**- Bere ezaugarri sozietarioak direla eta, 4/1993 Legearen **94.2.d artikularen xedeak** betetzen dituzten ikastetxeek, bereziki **herri-onura izendapena** daukatenean, haien ondarearen trataera berezia jasoko dute ohiko finantziabidean.

Ikastetxeen autonomia, nortasun instituzionala eta kudeaketa bermatze aldera, **ikastetxeen eta botere publikoen arteko harremanak hitzarmenetan oinarrituko dira**, titulartasun eredu desberdinen osagarritasuna, aldean nortasuna eta ezaugarriak zainduz, beti ere arestian aipatutako ezaugarriak betetzen badira.

Gure ustez, hiru aldaketa hauen oinarrian Hezkuntza Lege berria egon beharko luke, EHZPren definizioak, aukera berdintasun erreala eta finantziario-eredu berriak ez baitute sarbiderik egungo hezkuntza marko estuan.

UNESCOk 2015ean argitaraturiko “Replantear la educación ¿hacia un bien común mundial?” liburuaren edukira itzuliz ¹¹, “la noción de la educación como bien común (y añadiríamos nosotros como servicio público) reafirma su dimensión colectiva como tarea social común de responsabilidad compartida y compromiso con la solidaridad”

¹¹ Replantear la educación ¿hacia un bien común mundial?, UNESCO, 2015

2. atala edo blokea.- Hezkuntza edukiak

Lau gai jorratzen dira: Euskaran ardazturiko hezkuntza eleanitza, Konpetentzia digitalaren garapena, Hezkuntza sistemaren eta ikastetxeen ebaluazioa eta Irakasleen prestakuntza. Aurreko atal edo blokean egin dugun bezala, zenbait gako bereizten ditugu, lege baten egikeran kontuan hartu beharrekoak.

Hezkuntzaren xedearekin koherentzian, **konpetentzietan oinarritutako euskal curriculumaren garapena da gure abiapuntua**, bertan kokatzen baititugu jarraian azalduko ditugun aukerak.

2.1.- Euskaran ardazturiko hezkuntza eleanitza.- XXI. mendeko gizartea eleanitza da. Egungo gizartean, globalizazioaren mendean, komunikazio baliabideak gorantz doaz, bai eta pertsonen eta nazioarteko harremanen mugikortasuna ere. Gizarte eredu horretan ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bati eustea eta suspertzea – euskara– hizkuntza hori gizarteko hizkuntza bakartzat hartzen bada. Euskaldunon etorkizuna eleanitza da. Euskarak iraun ahal izateko, euskarak berak ardatz izan behar du bere hizkuntz eremuan baina, horrekin batera, euskaldunok beste hizkuntza batzuk hitz egiteko gai izan behar dugu. Bestela, euskara bera arriskuan egongo litzateke.

Bide honetan, hizkuntzen trataera integratua eta integrala oinarritzat hartuz, ikasleen irteera-profileko eleaniztasun-maila lortzeko helburu zehatzak adierazi nahi ditugu proposamen honetan.

Derrigorrezko Hezkuntza bukatzerakoan, hizkuntza konpetentzia ebaluatzeko, **Europako Hizkuntzen Erreferentzia Bateratuen Esparruan oinarritu gara**. Nahitaezkoa izango da euskara eta harremanetarako hizkuntza (gaztelania EAEn) ondo menderatzea (bere kasako erabiltzailea, B₂ maila Europako Erreferentzia Esparruan); bestalde, hirugarren hizkuntzaren maila apalagoa eskatuko da (bere kasako erabiltzailearen maila apalagoa, B₁ maila). Hala ere, **mailakatze hau eskoletako egoeratik kanpoko erreferentzia denez gero, eskolen errealitatera egokitu beharra dago**. Erakunde publiko eta pribatu desberdinen eskutik, hainbat urrats egin dira atal honetan.

Eskolak, hezkuntza sistemak, hizkuntza horiek guztiak erabiltzeko eta ikasteko aukera bermatu beharko dute. Ondorioz, hezkuntza-komunitatearen harremanak zein ikaskuntza-prozesua bera ere arautu beharko dira helburu hauek ziurtatu ahal izateko. Horretarako, hizkuntza bakoitzak eskola barruan izango duen funtzioa eta hartuko dituen eremuak definitu beharko dira, eta hizkuntza bakoitzaren irakaskuntza noiz hasiko den eta ordutegian zein pisu izango duen zehaztu beharko da.

Erabaki horiek hartzeko garaian, ezinbestekoa izango da kontuan izatea eskola bakoitzaren inguruko hizkuntzen egoera soziolinguistikoa nahiz euskararen

normalkuntzaren esparrutik datozen ekarpenak. Izan ere, horrela bideratu ahal izango dugu euskararen garapena eta normalizazioa oztopatzen ez duen eta, beraz, euskararen ardatz duen hizkuntza eredu eleaniztuna. Ekarpene hauek guztiak bildu beharko dira eskola bakoitzak bere autonomiaren baitan eraiki behar duen **Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuan**.

Irizpide hauen arabera bideratu beharko da **ebaluazio-prozesua**: ikastetxearena, ikasleena eta irakasleena, ebaluazioa beste esparru batean ezaugarritzen den era kontuan hartuz. Eta ebaluazioa aipatzen dugunean, norabide batean aurreikusten dugu, hobekuntzarako ebaluazioa, hobekuntzarako aukera. Horri lotuta, ikastetxe bakoitzeko Hizkuntza Proiektuak garatzeko, baliabideak eta apustu serioa egon beharko luke administrazioen aldetik.

Halaber, halako planteamendu baten bitartez, **eztabaida antzuak alboratu** nahi ditugu:

- Hizkuntza-ereduen inguruko eztabaida: gorago adierazi bezala, eskola bakoitzak hizkuntza horiek guztiak eta hizkuntza mailak bermatu beharko ditu, kanpoko ebaluazioen bidez egiaztatuz.
- Metodologiaren inguruko eztabaidak.
- Hizkuntza-ereduen araberrako ikastetxeen hautaketa

Aldi berean halako planteamenduak lege-esparru berria behar duela azpimarratu behar dugu, egungo legedian ez baitu tokirik. Hezkuntza Lege baten aukera baino alternatiba hoberik egon daiteke?

2.2.- Konpetentzia digitalaren garapena.- Egungo hezkuntza prozesuetan erronka den Informazio eta Komunikazio Teknologien erabateko integrazioak, alde batetik, ikastetxeetako antolaketa-ereduan aldaketa esanguratsuak eskatzen ditu eta bestetik, irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzaren moldaketa, ikasleekin konpetentzia digitala landu ahal izateko irakasleek ere hori menperatzea beharrezkoa baita.

Eta desberdinetarako irteera profila, Europako DIGCOMP markoaren baitan zehazten dugu bere bost dimentsioetan eraginez: Informazioa, komunikazioa, edukiak sortzea, segurtasuna eta arazoak bideratzea. Hori horrela, derrigorrezko hezkuntza amaitzen duen ikaslea profil horrekiko konpetente digitala izango da eta kultura digitalean aritzeko gaitua egongo da

Hala ere, Francesc Pedroren txosten baten edukiarekin bat eginik¹², IKTen ezarpenarekin eskuratu nahi diren helburuak eta hobekuntza adierazita, jarraiko ondorioa helduko ginateke, "hitz gutxitan, gehiago, hobeto eta desberdin ikastea", hain zuzen ere. Bestalde, gako nagusietako bat **ikasmaterial didaktikoaren gaia**

¹² Francesc Pedró, XXVI Semana Monográfica de la Educación, LA EDUCACIÓN EN LA SOCIEDAD DIGITAL "Tecnología y escuela: lo que funciona y por qué. Documento Básico", Fundación Santillana 2011

bihurtzen da, beste era batera esanda, “plataformek erraztu behar dute material didaktikoetarako sarbide ordenatu eta hierarkizatua, beti ere irakasle-taldearen gainbegiratu zuzenaz eta laguntzaz”.

Honetaz, ez dago eztabaida handirik. Denok gatoz bat. Horregatik, helburuok betetzeko egin beharreko eztabaida bakarrik zentratu nahi dugu.

Gure ustez, ondorengoak izan daitezke konpetentzia digitala garatu ahal izateko oinarritzko baldintzak:

1. Baldintza pedagogikoak edo IKTen erabilera didaktikoak zehaztea eta adostea
2. Formazio baldintzak: Irakasle konpetente digitalak lortzeko beharrezko prestakuntza planaz ari gara.
3. Baldintza teknologikoak: Teknologiaren integrazio egokia gerta dadin behar den IKT azpiegitura
4. Antolaketarako baldintzak: Ikastetxeetan konpetentzia digitalaren inplementazio eta garapen egokia gerta dadin, beharrezko antolaketa eta funtzionamendurako baliabideak. Gure ustez, prozesu hori ongi planifikatzeko bide eraginkorra ikastetxearen **IKT plana** zehaztea da, hau da, “IKTen integrazioarako Plan Estrategikoa” definitzea.

Bestalde, aipatu baldintza guztiek (pedagogikoak eta didaktikoak, prestakuntzakoak, teknologikoak eta antolaketa mailakoek) isla eduki beharko lukete ikastetxeen finantziazioan eta halaxe adierazten dugu finantziazio-arloko proposamenaren edukian, moduluaren berrikuntzarako aukera azaltzen dugunean.

2.3.- Hezkuntza sistemaren eta ikastetxeen ebaluazioa.-

Hezkuntzaren hobekuntzak eta pertsonen eta erakundeen gaineko ondoriozko interbentzioek helburu horietara bideratu diren egiaztatze, alde aurretiko ebaluazio prozesuak eskatu dituzte.

Ebaluazioaren baitan kontzeptu eta prozesu desberdinak biltzen dira: argibidea, kalifikazioa, egiaztapena, prozesuen hobekuntza, accountability-prozesuak, erabaki egokiak hartzea, garapen profesionala, ..., hots, **ebaluazioa behar dugu eta gainera norabide askotan behar dugu**. Ez dezagun gure burua engainatu, **daturik gabe ez dago hezkuntza politika eta hezkuntza interbentzio eraginkorrik egiterik eta datuen oinarrian ebaluazioa dago**. Nolako ebaluazioa?

Hezkuntzaren erronka berriek “ohiko” **ebaluazio prozesu osagarriak** eskatzen dituzte. Gizarte konpromiso desberdinei begira (aukera berdintasuna eta inklusioa, bizitzarako hezkuntza, ezagutzaren jendarterako prestakuntza, banakako irakaskuntza, ...) nekez

aurreratuko dugu egungo ebaluazio prozesuak osatu gabe, autorregulazio-prozesuak erabili gabe. Beharrezkoak izanik, ezin dugu mugatu ebaluazioa kanpo-frogetara. Ebaluazioaren ikuspegia zabaldu beharrea gaude.

Aldi berean, autonomiarekin batera, ebaluazioa txanponaren beste aldea dela garbi azpimarratu nahi dugu: ezin da ikastetxe autonomiadunak edota administrazioarekiko akordioz ezarriak izan, ebaluaziorik eta kontrol sozialik gabe.

Halaber, emaitzen hobekuntzarik ahalbidetzen ez duten ebaluazio prozesuek ez dute zentzurik. Geuk hezkuntza sistemaren funtzionamendua eta haien ikastetxeetako ikasleen jardura eta irakaslanaren ezagutza hobesten dituen ebaluazioa bultzatzen dugu.

Bide honetan eta agiri honen atarian **ebaluazio-sistema propio baten aldarrikapena** egin nahiko genuke, gaur egun dugunaren eskumenak eta lanerako baliabideak gehituz. Berriazko Hezkuntza Lege baten oinarrian, daukagunetik haratago ebaluazio sistema baten diseinua eta antolaketa egon beharko luke.

Aldi berean interesgarria litzateke **ebaluazio-sistemaren kudeaketa erakunde autonomo baten esku egotea**, non Administrazioa publikoarekin batera (Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren definizioarekin bat eginik) eskola komunitateak eta hezkuntza eragileek parte hartzen duten.

Abiapuntua aurrekoa izanik, gure aldetik, ebaluazioaren nondik norakoan ondorengo lan-ildoak eta irizpidea aurreikusten ditugu:

1. **Ebaluazioa kalitatearen eta ekitatearen berma bihurtzea.**
2. **Autoebaluazioa.**- Oinarrian, autoebaluazioaren bidez ikastetxearen ahulguneak eta indarguneak ezagutuko ditugu, eredu aitortuak ezarrita eta ikastetxe bakoitzaren errealitatera begira beharrezko egokitzapenak eginez, ikas-irakas prozesuak doitzeaz gain, eskola emaitzen hobekuntza-azterketa honen ondorio zuzena izango delarik. Ikastetxearen ebaluazioaren oinarrian bere Hezkuntza Proiektua dago eta honetatik ondoratzen diren adierazleak.
3. **Kanpoko ebaluazioa hobekuntzarako tresna.**- Kanpoko hezkuntza-eragileek, adosturiko metodologia eta helburuen bitartez, maiztasun jakin batez ikastetxeen funtzionamendua ebaluatuko dute, horretarako adierazle desberdinak erabiliz: ikuskarien lana, ebaluazio-erakundeena, ikasleen emaitzen azterketa edo adosturiko beste batzuk.

Kanpoko ebaluazioak direla eta, **ebaluazio diagnostikoari** esparru berezia eman nahi diogu. Aurreko irizpideekin bat eginik, honela ezaugarritzen dugu:

- 3.1.- Ebaluazio-mota hau **Hezkuntza Administrazioaren eta ikastetxeen erantzukizun partekatu gisa** planteatzen dugu

- 3.2.- Helburu orokor gisa, hezkuntza sistemaren eta ikastetxeen **hezkuntza jardunaren hobekuntza** izatea. Ikastetxearen berariazko ebaluazio-prozesua osatu, kontrastatu eta aberastu behar dute.
- 3.3.- Diagnostiko-ebaluazioa osatzen duten proben helburua izango da ikasleek **oinarrizko kompetentzietan zer maila** lortu duten **egiaztatzea**, zenbait arlotako kompetentzietara mugatu gabe. Beraz, familientzat eta hezkuntza-komunitate osoarentzat, izaera informatiboa eduki beharko lukete.
- 3.4.- Ebaluazio horiek ezin dute eragin akademikorik izan. Kanpoko froga batek ezin du inoiz halako izaerarik izan, ikas-irakas prozesuetan ebaluazio-ardura orokorrak ikastetxearena eta irakasle taldearena izan behar du.
- 3.5.- Aurrekusitako ezaugarrien arabera, Lehen Hezkuntza edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zehar kokatzen ditugu.
- 3.6.- Lortutako kompetentzia-mailan faktore indibidualak eta faktore sozioekonomiko, kultural eta linguistikoak kontuan hartzea
- 3.7.- Faktore hauek guztiak kontuan hartuz, guretzat ikastetxeen sailkapenik ez da onargarria, bai aldiz, datuetan oinarrituriko praktika egokiak eta interbentzio-eredu eraginkorrak ezagutzeko eta erakusteko aukera izatea.
- 3.8.- Diagnostiko-ebaluazioa **hezkuntza zerbitzu publikoa osatzen duten ikastetxe guztiek** egitea.

4. **Borondatezko esperientzia pilotoak eta esperimenezko ikastetxe bakoitzaren “balio erantsia” neurtzeko**, hots, ISEK, egoera soziolinguistikoa edo beste aldagai batzuk adosturik, ikastetxe bakoitzak haren ikasleen hezkuntzari gehitzen diona.

Balio erantsitatzat ondorengoa ulertzen dugu: denbora jakin batean (etapa, ziklo, derrigorrezko eskolaldia) ikasleen batez besteko aurrerapena neurtzen duen adierazlea edo adierazle multzoa definitu ondoren, ikastetxe bakoitzak bere ikaslegoari ematen diona zehazten da, lagin bereko eta antzerako egoera sozioekonomikoko beste ikastetxeekin alderaturik.

Era horretara, ikastetxeen emaitzak aldera daitezke eta ikastetxe bakoitzak haren ikasleen alde aurretiko ezagutzei eman dien bultzada neur daiteke: halaber, antzeko ezaugarrietako ikastetxeak neurtzen direnez, egoera horietarako hezkuntza estrategia eraginkorrak edo eraginkorrenak bereiz daitezke.

Balio erantsia neurtzen duten ebaluazioak eskolen diagnostikoa eta hobekuntza bideratzeko oso erabilgarriak izaten dira eta baliogarriak ikastetxe guztientzat, edozein titulartasun-mota dutelarik.

5. Ebaluazioarekin batera, **gizarte-erantzukizuna eta kontrola** ere aipatu nahi ditugu. Kontzeptu hau era askotara uler daiteke, baina geuk batez ere baliabideen kudeaketa-arloan kokatu nahi dugu. Gizarte batek, euskal gizarteak hain zuzen ere, hezkuntzan inbertitzen dituen baliabideen erabilpenaz informazioa eduki behar du, ordezkariak demokratikoak horren berri eman behar dio gizarteari, edozein antolamendu dela medio, hezkuntza zerbitzu publikoak bere kostea baitauka. Honela, eskuratzen diren emaitzekin batera, ebaluazioak ematen duen informazioa kontuan hartuz, hezkuntza-politikaren diseinua egin ahalko da, euskal hirritarren eskubideak hobeto bermatuko dira.

2.4.- Irakasleen prestakuntza.- Azken urteotan irakasletza eta honen testuingurua nabarmenki aldatzen ari dira. Gizarte eta gizarte-eragile batzuen eginkizuna (familia, erakundeak, ...) aldatzen den heinean, gero eta hezkuntza eskari gehiago iristen da eskolara.

Gaur egun 2007ko McKinsey Txostenak ¹³zioenak garrantzi handiagoa hartu du, hots, neurri handi batean **Hezkuntza Sistema baten funtzionamenduaren neurria edo adierazle nagusienetakoa haren irakasleriaren kalitateak ematen du**. Irakasleria ezagutzaren gizarte baterantz abiatzeko osagai gakoa dugu.

Testuingurua halakoa izanik, prestakuntzaren inguruko proposamenak egiteko garaian, Hezkuntza sistemaren helburuak eta ikastetxeen Hezkuntza proiektuak izan beharko lukete irakas-jardueran oinarria.

Bide horretan gogoetarako proposamenak egiten ditugu:

- 1.- Eskola bakoitzak bere irakasleriaren profil orokorra eta espezifikoa egitea.
- 2.-- Irizpide honetaz gain, **hasierako formazioari dagokionez**, bi ñabardura:
 - HH eta LHo ko irakasleen formazioan practicum-aren garrantzia, jarraipena eta ondorengo irakas-jarduerarekiko lotura areagotu beharko litzateke.
 - BHko irakasleriaren formazioan oinarrizko prestakuntza eta practicum-a errotik berbideratu beharko litzateke irakaskuntzarako formazio-educia eta izaera nabarmenduz.

¹³ ¿Cómo hicieron los mejores sistemas educativos del mundo para alcanzar sus resultados?, McKinsey, 2007

- 3.- **Practicum-eko esperientzia** kontuan hartu beharko litzateke irakaslearen ondorengo kontratazioa gauzatzeko garaian, ikastetxe bakoitzaren beharra eta kontratatugai horren formazio eta balorazioa kontuan hartuz. Halaber epe horretarako mentoring-aukerak eta lanpostuari egokituriko aholkularitza ziurtatu beharko lirateke.
- 4.- **Irakasbidean zeharko jardun profesionalari dagokionez**, proposamen osoa egin beharko litzateke. Bide honetan lidergoa eta ardurak bereganatzea suposatzen duten aukerak bereziki hartu beharko lirateke kontuan.
- 5.- **Irakasleen etengabeko prestakuntza**-egitasmoen arrakasta eta eskola emaitzen hobekuntza sustatze aldera, gure ustez, ondorengo orientabideak zaindu beharko lirateke:
- Etengabeko prestakuntzaren oinarrian Hezkuntza sistemaren helburuak eta ikastetxeen Hezkuntza proiektuak eta hauen hobekuntza beharko lukete egon. Horiek ziurtatzera bideratu beharko genuke etengabeko prestakuntza.
 - Gaur gaurkoz, garaian garaiko Hezkuntza sistemaren helburuetatik ondoriatzen den **Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoaren garapena ziurtatuz.**
 - Bost aldagai nabarmendu nahi genituzke bide honetan:
 - ★ aldaketaren eta hobekuntzaren erdigunea eskolan dago, hortxe zentratu behar dugu
 - ★ “eskola kultura” aldatu behar da, irakaslegoak, beraz, prozesuan aktiboki hartu behar du parte egitasmoen definizio eta ebaluazioan.
 - ★ lidergo propioa ezinbestekoa da.
 - ★ eskolako estamentu guztiek hartu behar dute parte
 - ★ Ikasteko eta irakasteko era aldatu behar da, gelarako bidean jarri behar dugu, hots, oinarria batez ere eguneroko jarduera izatea
 - Berrikuntza, hobekuntza eta prestakuntza planifikatzeko unean Unibertsitatea eta beste estamentuen arteko elkarlana ezinbestekoa da. Aldi berean, Administrazioaren menpeko orientazio eta aholkularitzaren zerbitzuen lanaren norabidea nabarmen aldatu beharko da, helburu eta estrategia hauen mesedetan.

3. atala edo blokea.- Antolaketa, Ikastetxeen autonomia

Egungo hezkuntza sistema hoberenek (eskola emaitza onak eta ekitatiboak lortzen dituztenak) haien eskolen autonomia dute oinarri: curriculum, ebaluazio edo/eta baliabideen kudeaketa ataletako erabakimena ikastetxeetan lekutzen da hein handi batean.

Gure ustez, Euskal Herrian ezagutzen dugun eskolak ez du autonomia nahikorik, batez ere egungo sare publikoan. Garai bateko eredu zentralista ez da funtsean aldatu. Erabakigune geografikoa aldatu da, ez bezainbeste eskolaren funtzionamendua ulertzeko modua. Ikastetxe batean eragiten duten erabaki asko/gehiegia ikastetxetik kanpo hartzen dira.

Erakunde, eragile eta aditu askoren arabera, **ikastetxea ikas-irakas prozesu nagusiak biltzen dituen oinarrizko gunea da**; herritarron hezkuntza-eskubideak gauzatzeko eremua, hain zuzen. Izan ere, hezkuntza prozesu asko eskolan gertatzen dira. Hortaz, **hezkuntzaren aukera eraldatzaileak zehaztu eta kalitate maila gorena lortu dezakeen testuingurua da eskola.**

Gaur egun bakarrik autonomiatik uler daiteke ikastetxe baten funtzionamendua. Nekez beste era batera jardutea. Ikastetxe bakoitza errealitate bizi eta berezia dela begi bistan dago, haren ingurua eta beharrak desberdinak direlarik. Desberdina dena ezin da berdindatu eta kudeatu.

Ikastetxeek autonomia handia izan behar dute eskolaturik dagoen ikaslegoari ahalik eta erantzunik hoberena eman ahal izateko. Autonomiak ondorengo onurak ekarriko dizkio ikastetxeari/zerbitzu publikoari: inguruarekiko lotura zuzenagoa, gizartearen partaidetza, pedagogia beharrian zuzenekiko erantzun eraginkorra, aniztasunean oinarrituriko kudeaketa, ikasleen integrazioarako aukera, ekitate eta kalitate maila hobea.

Zerbitzu publikoaren ikastetxe guztiek erabateko autonomia izango dute, beti ere hezkuntza zerbitzu publikoa definitzeko erabili diren irizpide orokorrak kontuan hartuz.

Zenbait proposamen eskolaren autonomiaren inguruan

Aurreko iritziak eta markoa kontuan hartuz, ikas-irakas prozesuen kudeaketan ekitatea gehitu, hobekuntzan aurrerapausu esanguratsuak eman eta autonomia irabazteko eztabaidarako gidoia egiten dugu. Horra hor proposamenok:

1. **Ikastetxeen autonomian oinarritutako sistema**, eskola komunitatearen partaidetza, antolaketa eredu berriak eta izaera instituzionala garatzeko bilgune
2. **Ekitaterako autonomia**.- Ikastetxe guztiek ezaugarri desberdinak izaten dituzte: hizkuntza, kultura edo/eta maila sozioekonomikoan.

Ondorioz, erantzun desberdinak, testuinguratuak, behar dituzte kalitatea eta aukera berdintasuna lortze aldera.

3. **Giza baliabideen ataleko kudeaketarako autonomia**, batez ere administraziopeko ikastetxeetan. Proposamen honen gako bat atal honen garapenean egon daiteke.
4. **Administrazioaren eta ikastetxe bakoitzaren arteko AKORDIOaren bidean aurrera** egin dezakegu EHZPko ikastetxe guztietan.
5. Aurreko proposamenak aurreratze aldera, **Ikastetxeetako zuzendaritzen lidergo-eredu berria**. Gure ustez, ez dago aurrera egiterik gainontzeko ataletan eskoletako lidergo pedagogikoa eta haren kudeaketa-eredua sakonki aldatu gabe.

Aldi berean, hezkuntza txosten eta ikerketa gehienek ondorengoa azpimarratzen dute behin eta berriz: eskola sistema arrakastatsuetan hobekuntzaren eta arrakastaren muinean eskolen autonomia eta ebaluazio-sistemak (“accountability”) daude.¹⁴

¹⁴ **OHARRA.**- Irizpide hauek aldarrikaturik, ikastetxeen autonomiaren inguruko proposamen garatuagoa eranskin gisa eskeintzen dugu.

4. atala edo blokea.- Eskola emaitzen hobekuntza

Legearen beharra justifikatu dugunean (idatzi honen 1.5 atala), adierazi dugu Hezkuntza Lege bat egikaritzeak hezkuntza arloko epe ertaineko helburuen eta lehentasunen definizioa argitzeko balio behar duela, gure ustez, euskal hezkuntzaren testuinguruan eskola emaitzen hobekuntza ere tartean dagoelarik.

Bide horretan, Hezkuntza Sistemak bere osotasunean eta eskola bakoitzak, bere autonomiaren arabera, hausnarketa eta diagnostiko partekatua burutu beharko lituzkete, hobetu beharreko atalak zehaztuz. Irizpide gisa, atal edo arlo baten hiru ebaluazioetan emaitza eskasak eskuratu direnean, hobetu beharrekoa dela ondoriozta dezakegu. Abagunea hauxe izanik, 2016ko udaberriaren argitaraturiko Ebaluazio Diagnostikoren emaitzek eta 2015eko PISAko ebaluazioarenek, haien muga guztiak onarturik, hausnarketa egiteko balio behar dute.

Norberaren hezkuntza proiektutik abiatu (eskolen autonomiaren balioa berriz azpimarratzen dugu), emaitza hauek bertan txertaturik, **Hezkuntza sistemak eta eskola bakoitzak bere hobekuntza plana** izan beharko lukete, non diagnostiko partekatua eta adostua, helburu argiak eta mugatuak, prestakuntza, ebaluazio-sistema, baliabide esleituak eta egutegi aurreikusia zehazten diren. Plan honek bere osotasunean eta eskola bakoitzean jarraipen eta ebaluazio sistematikoa izan beharko luke.

Hobekuntza esparrura jota, gogoeta burutzeko ondorengo aldagaiak hartzen ditugu kontuan:

- hezkuntza aukera inklusiboak emaitzetara eraman behar badira, inklusioa bihurtu behar dugu hobekuntzaren abiapuntu eta ardatz.
- testuingurua baztertu gabe, arazoak eta eragozpenak aztertze eta **hobekuntzak zehazteko eta bideratzeko ardura eskola/ikastola/ikastetxe bakoitzaren barruan** kokatu behar direla, hezkuntza proiektuaren araberrako eskola komunitate osoaren inplikazioa eta erabakimena ezinbestekoak izanik.
- hobekuntza prozesuen inplementazioaren ondorioz, **ikasleen emaitzetan eta profesionalen gaitasunean eragin positiboa** eskuratuko dela, bi kolektibo hauek banaka zein taldeka harturik.
- hobekuntza prozesuak errealagoak dira **ikuspegi argia eta praktikoa** erabiltzen bada:
 - hobekuntzarako arlo edo atal kopurua mugatua izatea, hots, arlo jakin batzuk
 - ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuekin erlazionatuta egotea, ikasleen apendizajei lehentasuna emanez.
 - eskolaren helburuetarako prozesu horiek erabakigarriak izatea

Nola enfokatu hobekuntza? Hausnarketa kolektibo batean parte hartu nahian, ideia batzuk adierazi nahi ditugu:

- Gure ustez, **ikas-irakas prozesua hobetu/berbideratu/aldatu** nahi badugu, hobekuntzaren gune nagusia, ez bakarria, lehentasunez ikasgela bilakatu behar dugu. Izan ere, gela barruan bideratzen diren ekintzak eskola osoa hartuta baino eragin gehiago daukate ikaslearen emaitzetan¹⁵.
- **Irakasleen prestakuntza eta talde-lanerako gaitasuna areagotu** behar dira, bere praktikaren inguruko **hausnarketa** (ebaluazio hezigarria) eta **hobekuntza-proiektuaren neurriko prestakuntza** bultzaturik, azken finean bere jarduera eta berau ulertzeko modua alda ditzan. Kultur aldaketarik ez badago, lanbidea beste era batera ez bada ulertzen, nekez egongo da benetako aurrerapena. Sarri askotan azpimarratu denez, “hezkuntza sistema baten kalitatearen gehienezko adierazlea haren irakasleen kalitatea da”¹⁶. Arlo hauek (prestakuntza eta lan egiteko era), baita lanbidearen ospearen hobekuntza beste era batera sustatu behar dira.
- Eskola emaitzak bereziki hiru aldagaien (irakaslegoaren gaitasuna, curriculumaren aplikazioa, antolaketa orokorra) arteko elkarreraginaren ondorioa izanda, ezin saihestu **lidergo pedagogikoa**rena. Lidergo pedagogikoa ulertzeko modu bakarria ez dagoela kontuan hartuz, Sistema osoan eta ikastetxe bakoitzean, hezkuntza proiektuaren ezaugarrien arabera, lidergo pedagogikoa inbertsio gisa hartu beharko genuke.

Bide honetan joanda, berritzeguneen zereginaz ere gogoeta sakona egin beharko genuke. Gure ustez, ulergaitza izan daiteke hobekuntza proiektuekin bat egiten ez duen jarduna. Aldi berean, hezkuntza proiektua edo proiektuen ildo nagusiak partekatzen dituzten ikastetxeen eta ikastetxe-multzoen hobekuntzarako planifikazioa, antolaketa eta jarduera komunak (behar diren baliabideak, barne) ahalbidetuko beharko lirarteke, horren gida egiten duten taldeei berritzegune aitortza eginez.

Laburbilduz, gorago esan bezala, Hezkuntza Lege baten egikera aukera izaten bada hezkuntza arloko epe ertaineko helburuen eta lehentasunen definizioa argitzen laguntzeko, kanpo ebaluazio diagnostikoan lorturiko emaitzak hausnarketa honetan erronka bihurtu behar ditugu.

Munduan zehar pilaturik dagoen esperientziaren arabera, hezkuntza aldaketa eta erreforma batzuk testuinguru jakinean gertatzen dira: “krisialdi ekonomiko edo politikoa, hezkuntza txosten kritikoa eta lidergo politiko edo estrategiko berria”¹⁷ akuilutzat hartzen dituzte. Halako aldagai batzuk gure kasuan bildu egiten dira.

¹⁵ Stoll L., Fink D., (1999) / Elmore, Richard,(2010)

¹⁶ Michael Barber, Mona Mourshed, “Cómo hicieron los sistemas educativos con mejor desempeño del mundo para alcanzar sus objetivos”, (2008)

¹⁷ Michael Barber, Chinezhi Chijioke, Mona Mourshed, “Cómo continúan mejorando los sistemas educativos de mayor progreso en el mundo”, (2010)

3.- Nola aurreratu Hezkuntza Legerantz

Puntu honetara heldurik, bi urrats hauek ohikoak izaten dira:

1. Lehenengo eta behin definitu behar dira ondo **eztabaidagune nagusiak**, gai gakoak deiturikoak. Behin eta berriz esan dugu Hezkuntza Lege baten helburua izan behar duela irakaskuntza eta aprendizaien kalitatea eta ekitatea hobetzea. Hau honela izanik, faktore honen garapena eragozten duten aldagaien diagnostiko zehatza eta zuzena eskuratu beharko genuke, bereziki “polemikoak” baldin badira.
2. **Solaskideak** ere zehaztu beharko dira: erakundeak, eragile politikoak, hezkuntza eragileak eta eragile sozialak definitu eta bakoitzaren eginkizuna zehaztu.

Gure aldetik, hauekin batera hiru gogoetagai planteatu nahi ditugu. Planteamenduak egiten ditugunean, gure buruari egiten dizkiogu galderak, Hezkuntza Lege baten egikeran ez baitago erantzun bakarra, ezta estrategia bakarra ere. Segur asko, ekleptizismo dosi bat, sintesirako aukera izan daiteke erantzunaren muina.

1. Azken bolada honetan eragile batzuek, Hezkuntza Lege baten egikerak barnebiltzen duen eragozpenaz jabeturik, **akordio txikiak**, partzialak hasi dira hobesten. Gure aldetik, berriz ere, **akordio orokorrari**, Hezkuntza Lege osoari ematen diogu erabateko lehentasuna.

Idazki honen hasieran adierazi dugun bezala, 1992az geroztik ez dago akordio orokorra hezkuntzan, akordio partzialen bidea jorratu dugu eta gai batzuk behin eta berriz azaltzen zaizkigu hezkuntza eskenatoki honetan: hizkuntza-ereduak, zerbitzu publikoa, finantziazioa, inklusibotasuna, irakaskuntzaren eta aprendizaien kalitatea, haien hobekuntza, kanpoko ebaluazioa, ... Luzaroan ahalegindu gara akordio partzialak, “txikiak” egiten. Gai hauen guztien artean, gure ustez, ukaezinezko lotura dago, bultzada orokorra behar dute, lege baten oinarri orokorra behar dute, banakako trataeran ez dute aurrera egingo.

2012ko abenduan idatzitako prentsa artikuluan baten edukia dakorkigu gogora¹⁸: “Somos partidarios de un cambio en profundidad que nos sitúe en el lugar que nos corresponde. Basta ya, en nuestra opinión, de políticas dispersas (Michael Fullan, experto canadiense, las denomina política de “bolitas de árbol de Navidad”), de cambios que hacen referencia a cuestiones parciales, sin coherencia ni articulación global.” Ondorio gisa,

¹⁸ Noticias de Gipuzkoa, 2012ko abenduaren 5ean, urte horretako hauteskundeak egin berri.

zera proposatzen genuen: “comprar un nuevo árbol, no nuevas bolitas que lo adornen”. Hezkuntza Lege orokorrak aipatu gaiei bultzada orokorra emateko aukera ezin hobea ematen digu. Egungo ataka honetan, ez dezagun energia xahutu aldaketa partzialetan.

- 2.- Bigarren eztabaida “klasikoa” izaten da ea aldaketak goitik behera edo behetik gora egin behar diren. Aldaketa eraginkorra izan dadin, eragileekin batera, elkarlanean, egin behar da. Batzuetan proposamenak eragileengandik etorriko dira, beste batzuetan ekimena bultzatzen duenaren aldetik. Partida hau ez da norantza bakarrekoa, ez da norabide bakar batean jokatu, ezta gauzatuko ere.

Sergio Bitar, Txileko Hezkuntza Ministro ohiak (Salvador Allende, Ricardo Lagos eta Michelle Bachelet presidenteen ministraria izandakoak) 2012ko abuztuan idatzitako testu batean ¹⁹ zera diosku: “Cuando se inicia un diálogo con la idea de arribar a puerto, se entra con unas ideas y se puede salir con otras. Cuando uno aborda el proceso de conversación y debate con apertura mental y voluntad de innovar (gure aldetik “y de acordar” gehituko genuke), se hallan fórmulas nuevas, surgen miradas y soluciones antes impensadas”

- 3.- Aurreko argudioekin batera, hirugarren gogoeta egin nahiko genuke. EAEko esparru administratiboan ibilbide luzeko ikastetxeak eta ikastetxe-taldeak daude. Aldaketa orokorretan, bereziki aldaketen garapenean, ezinbestean, ikastetxe eta ikastetxe-taldeekin kontatu behar da. Beraz, honetaz ere erantzukizun partekatua eta konfiantza. Horiek izango dira segur asko baliabide egokiak berrikuntzak biltzeko eta estrategia eraginkorrak bultzatzeko.

Hiruzpalau aldiz aipatu dugun “Replantear la educación. Hacia un bien común mundial?” UNESCOren Txostenari erreparatuz ²⁰, azken aipamena: “Ciertamente la educación, en su multiplicidad de funciones, no es sólo responsabilidad del gobierno, sino del conjunto de la sociedad. Una buena gobernanza en el sector de la educación requiere de múltiples alianzas del gobierno y la sociedad civil, y la política nacional de educación debería ser fruto de una amplia consulta social y un consenso nacional”.

¹⁹ Cómo construir consensos en educación, Sergio Bitar, PREAL 2012

²⁰ Replantear la educación. Hacia un bien común mundial?, UNESCO, 2015

4.- Amaiera

Jakin badakigu lege batek berez ez dituela arazo guztiak konponduko, ezta gai guztiak bideratuko ere, baina hezkuntzaren eremuko iparra definitze aldera erabat lagungarria izango da, gure ustez. Adostasun zabalen gainean eraikitako Sistemak aldaketa sakona eta errealista uste baino arinago eragin dezakeelakoan gaude.

Honelako prozesu bat abian jarriz gero, ordezkatzeko ditugun ikastolen izenean **ondorengo konpromisoak hartzeko prest gaudela azpimarratu nahi dugu:**

- Ikastolok eskola akordio zabal eta ireki baten partaidea izan nahi dugu, horren beharrezana eta aukera euskal gizartearen egoeran begi bistakoak baitira.
- Partaidetzarako jarrera erakusten dugunean, partaidetza aktibo eta eraginkorra eskatzen eta eskeintzen dugu. Era berean, erantzukizunez eta adostasunaren alde jokatzeko konpromisoa azaltzen dugu.
- Eskola akordioaren abiapuntua norberaren hezkuntza-eredua izanik, guk geurea aurkezten dugu eztabaidarako ekarpen bezala, proiektu partekatu baten garapenean gurearen aitortza eskatzen dugularik.

Urrats berriak, bestalde, **adostasun zabalen testuinguruan gauzatu beharra daude, iraunkorrak izan daitezten.** Hezkuntzak antolakuntza eta planifikazio egonkorak behar ditu emaitza egokiak eskuratu ahal izateko, gobernuak aldatzen diren bakoitzean epe laburreko joan-etorrietan ibili gabe.

Azkenik, hezkuntza alorreko talde, sindikatu eta alderdi politikoei parametro hauetan jokatzeko eskatzen diegu, eta, era berean, prest gaudela akordio zabal eta eraginkorra lortzeko behar bezalako arduraz, erantzukizunez eta malgutasunez jarduteko. Euskal gizarteak hala eskatzen digulakoan gaude.



ikastolenelkartea

